

# ANARKISMOAK

## Kropotkin eta Bakunin

Irakasgaia: Pentsamendu Politikoaren Historia  
**Ikaslea: Iker Iraola Arretxe**  
Soziologia Lizentziatura, 1.go maila  
2002ko ekainaren 4an

# **ANARKISMOAK: KROPOTKIN eta BAKUNIN**

## **Sarrera**

Lan honetan anarkismoa aztertzen da ideologia politiko honen bi pentsalari erreferenteren idazlan bana aztertuz. Batetik, Mikhail Bakuninen (1814-1876) *El principio del estado*<sup>1</sup> eta, bestetik, Pedro Kropotkinen (1842-1921) *La moral anarquista*<sup>2</sup>. Bi idazlanok ideia anarkista edota libertarioen oinarritzko kontzeptuak azaltzen dituzte batik bat eta, beraz, ez dute inolako teoriaren azalpen sistematikorik egiten.

Lan honetan idazlan bakoitzaren laburpen bat burutuko da batez ere, nahiz eta zati batzuetan iruzkinak edota kritikak ere azal daitezkeen. Beraz, lan honen helburua ez da laburpen zehatz bat egitea, laburpenaren bidez idazlanen ideia nagusiak azaltzea baizik. Bukaera gisa, idazlan hauen irakaurketarekin atera daitezkeen ondorio nagusiak aipatzen dira. Azkenik, lan honetan agertzen diren aipuak aipatutako idazlanenak dira.

---

<sup>1</sup> BAKUNIN, Mikhail, *El principio del estado*, Marxists Internet Archive, 2000

<sup>2</sup> KROPOTKIN, Pedro, *La moral anarquista*, Marxists Internet Archive, 2000

## **Kropotkin: “La moral anarquista”**

Kropotkinen idazlan hau hamar ataletan banaturik dago. Bertan, izenburuak azaltzen duen bezala, anarkistek izan beharreko edo jarraitu beharreko moralaz aritzen da idazle anarkista errusiarra.

Idazlanaren hasieran, giza pentsamenduaren historia pendulu batekin konparatu egiten du Kropotkinek. Aldi iraultzailetik aldi erreakzionariora igarotzen da etenik gabe, eta azken honetan moralaz ez da hitz egiten (erlijioak, eta sistema burgesak oro har, ez duelako kritikarako betarik uzten). Baina gazteria iratzartzearekin batera, iraultzaren sua piztuz, kritika sortzen da, *benetako* morala berriz eztabaidatuz. Kropotkinentzat, “*cuanto más se minan las bases de la moral establecida, o mejor, de la hipocresía que la sostiene, más el nivel moral se eleva en la sociedad*”.

Moralaren aurreko eztabaida honetan, zenbait autore eta pentsalari aipatzen ditu: Mandeville ingelesa XVIII. mendean, zeinak fabula baten bidez gizarte batean gailentzen den morala hipokrisiarekin parekatu baitzuen; Fourier, pasio askeak aldarrikatu zituen eta gizateriaren ideia moralak apaiz zein klase zuzendarien produktutzat hartu zituen; entziklopedistek eta eskoziar filosofoek ideia moralei egindako kritika handiak; 1793ko anarkisten proposamenak; etab...

Azkenean, hainbat gazte iraultzaile errusiarrek (nihilistak deitutakoak) hartutako erabakia aipatzen du Kropotkinek: *ez-morala izatea*. Baina zergatik ez-morala izan? Galdera hau erantzun aurretik, hau modu egoki batean planteatuta dagoen jakiteko, idazlanean giza ekintzen kausak aztertzen dira.

Azterketa honetan, Kropotkinek aurreko belaunaldiak aztertzen ditu, zeinetan ekintzak erlijioak zuzenduak baitaude (hasieran modu itsu batez deabruari beldurra zela eta, gero era *arrazionalago* batean ideia berdinak segituz). Ondoren, ikuspegi erlijiosotik urrun, zenbait pentsalarik baieztatu zuten gizakien ekintzen sorburua plazerra bilatzea zela (sentimendu egoista bat, beraz). Kropotkin baieztapen honekin erabat ados dago. Ikuspuntu hau arrazoi ugari emanez baieztatzen du. Adibidez, nahiz

eta norbaiti laguntza eman, helburu egoista batekin egiten dugu (gu geu geure buruarekin gaizki ez sentitzea). Edota iraultzaile martiriaren kasua ipintzen du, zeinak borroka horretan gozamenik handiena ezagutzen baitu. Ondorioz, Kropotkinen hitzetan, ekintza arrazoitu guztiek gozamina (edota, berdina dena, sufrimendua ekiditea) dute helburu. Are gehiago, honen ustez, animaliek ere inpultso bera jarraitzen dute.

Baieztapen honen aurrean, azpimarratzen du ez dela indiferentzian erori behar (nihilisten “moralak pikutara!” horretan eroriz) eta hezkuntza erlijiosoaren ondorioak gainditu behar direla. Bide honetan, animalien mundua aztertzearen beharra azpimarratzen du Kropotkinek: *“El mundo animal, en general, (...) sabe perfectamente lo que es bueno y lo que es malo sin consultar para ello la Biblia ni la filosofía. La causa está (...) en la mayor suma posible de felicidad para cada individuo”*. Kropotkinentzat zorientasuna bilatzea bizidun guztien ezaugarri biologikoa da, hortaz.

Horrela, idazlanean zenbait espezieren adibidea azaltzen da: inurriak, txoriak, marmotak... Eta baita gizakia ere. Denek bereizten dute ongi dagoena eta gaizki dagoena, eta elkartasun printzipioa izango dute guztiek. Puntu honetan, Kropotkinek horrela laburtzen du behaketa honetatik ondorioztatutako moralak: *egiezu besteei baldintza berdinetan besteek zuri egitea nahiko zenukeena*.

Elkartasunaren kontzeptua azpimarratzen du bereziki Kropotkinek; moralaren sorburua sinpatia sentimenduan jartzen du. Berarentzat ezinbestekoa da elkartasuna gizarteak aurrera jo ahal izateko, eta kontzeptu hau moralarekin parekatu egiten du neurri handi batean, jarraian sentimendu moralak gizakiaren ezaugarri banaezina dela baieztatuz. Legeak, Erlijioak eta Autoritateak gizakiaren berezko ezaugarri hau usteldu besterik ez dute egiten.

Honekin batera, berdintasuna aldarrikatzen du Kropotkinek: *“Llamándonos anarquistas (...) no toleramos más desigualdad, lo cual permitiría a alguno de entre nosotros ejercitar la violencia o la astucia o la habilidad del modo que nos desagradaría a nosotros mismos. Pero la igualdad en todo es la anarquía misma”*. Ildo honetan, berdintasuna errotik aldarrikatzearekin batera, berdintasun hau inori ken dakioken dilema planteatzen du (hots, biolentzia politikoaren afera). Indarra erabiltzeko eskubidea aitortzen du, beti ere eskubide hori *konkistatu dutenei* aitortuz

(pentsa dezakegu, hitz nahiko anbiguo hauekin, berdintasuna errespetatu eta horren alde ari direnetaz ari dela).

Behin gizakiaren bizitza kontzientearen alderdi hauek guztiak aztertu ondoren, Kropotkinek bizitza inkontzientean jartzen du arreta, gizakion bizitzaren zatirik handiena betetzen baitute ekintza hauek. Pertsonen jokatzeko moduak denborarekin ohiturak bihurtzen dira. Kropotkinentzat, beraz, besteei tratatzea besteak norberarekin egitea nahiko lukeen bezala, gizakien eta animalia sozialen ezaugarria da. Ongi jokatzeko habitua hau hausnarketarik gabe egiten da, soilik egoera berezietan burutzen da hausnarketa hau pertsonaren baitan. Kasu hauetan, autorearen aburuz, hartutako erabakia moralagoa izango da oraindik, norberaren burua bestearenean ipintzen saiatzen baita gizakia ziurgabetasun momentu hauetan. Berdintasun printzipioa inoiz baino ageriagoa gelditzen da, beraz. Gizakiaren berezko ezaugarria da. Gainontzeko kasuetan (inkontzienteki jarduterakoan) era moral batez jarduten dugu gizakiok ohitura gisa, kasuen %99an.

Horrela, nahiz eta morala gizakiaren ezaugarritzat hartu, Kropotkinek moralaren inposizioa gaitzesten du. Berarentzat moralarekin lotutako zigorrak ez dira bidea; aitzitik, irtenbidea gizakien ilustrazioan eta sistema kapitalistak gizakien baitan sortutako ondorioen deuseztearekin dator. Hau da, gizakiak ongi jokatzeko duen gaitasunaz fidatzen da eta, aldi berean, gizakien hezkuntzaren aldeko aldarria egiten du askatasuna eta berdintasunaren bidean. Gizakiarekiko erabat baikorra da. Eta zigorra baztertearekin batera, moralaren alor honetan erabakia hartu behar duen pertsonaz gain (hau da, norberaz gain), Kropotkinek gainontzekoei aholkua emateko eskubidea aitortzen die soilik. Bakoitzak du erabaki ahalmena.

Gizakien oinarrizko sentimenduentzat (maitasuna eta gorrotoa) askatasuna aldarrikatu egiten da liburuan. Sistemaren instituzio guztiek (Estatua, Eliza, kapitalismoa, epailea...<sup>3</sup>) gizakiaren zentzua (berez ona den zentzua) faltsutu besterik ez dute egiten. Sistema esplotatzailearen instituzioek berez ona den gizakiaren kontzientzia gaiztotu besterik ez dute egiten, beraz. Gakoa gizartearen baitan berdintasunezko

---

<sup>3</sup> Kropotkinek, zapalketaren kausak edo agente zapaltzaileak aipatzerakoan, behin eta berriz aipatzen ditu erlijioa, kapitalismoa/esplotazioa, justizia eta Gobernuak, eta ez bakarrik sistema kapitalista (era abstraktu batez). Sistemaren aurpegi guztiak guztiak jotzen ditu gizartearen zapalketaren erruduntzat.

harremanak mantentzea da. Ikuspuntu anarkista batetik, gizabanakoaren askatasun osoa errespetatu beharra dago; ezin da gizabanakoa inolaz ere zapaldu berdintasunaren izenean. Era berean, planteamendu igualitarioa oso-osorik errealitatean islatu ahal izateko, esplotazioak bukatu behar badu ere, gaur egunetik ere hasi daiteke berdintasun horretarantz bidea egiten (sistema garaitua izango den egunari itxaroten egon gabe).

Honekin batera, idazlanean gizakiaren energiaren ideia azpimarratzen da. Moral anarkista hedatzeko, jakinduriak transmititzeko... ezinbestekoa da energia hori. Eta Kropotkinek egitate bat baieztatzen du: *gizaki orok du bere ideala*. Ideal horrek, askotan inkonszientetik sortua, existitzeko energia hori ematen digu. Beharrezkoa dugu bizitzeko.

Bestalde, Kropotkinek altruismo eta egoismo kontzeptuen bereizketaren aurka dago. Moralistek kontzeptu hauek gizartea eta gizabanakoarekin, hurrenez hurren, parekatzen zituzten; baina Kropotkinen aburuz, ezin daiteke horrelako desberdintasunik egin gizartea eta gizabanakoa, funtsean, gauza bera baitira. “(...) *en ninguna época de la historia, ni aun en las geológicas, el bien del individuo ha sido opuesto al de la sociedad*”.

Ondoren, Kropotkinek *La moral anarquista*-ren bukaera gisa, gizabanako anarkistak jarraitu beharreko bidea eta morala zehazten ditu. Anarkistak borrokarako hautua egin behar du halabeharrez, berezko dituen berdintasunezko printzipio horiek arazo ugari sortuko baitizkio sistema esplotatzailearen baitan. Gizarte baldintza berrien alde aritu behar du anarkistak, gizartearen aldaketaren alde: “*El hombre convencido no quiere que se le permita dormir tranquilo, esperando que esta sociedad cambie por sí sola*”. Kropotkinentzat, gainera, berak bizi duen garaia aldaketa garai bat da, kritikarako aldia. Berarentzat, intelektuaren lana aurreratzen doan heinean, moral berri eta gorenago baten eraikuntza gertatzen ari da. Eta prozesu horretatik atera beharko litzatekeen moral anarkista zehazten du: “*Semejante moral no ordenará nada; rehusará en absoluto modelar al individuo con arreglo a ninguna idea abstracta, como rehúsa mutilarlo por la religión, la ley y el gobierno. Dejará la libertad plena y entera al individuo; llegará a ser una simple demostración de hechos, una ciencia*”. Gizabanakoaren defentsa, beraz, argi uzten du Kropotkinek eta, honekin batera, morala zientzia bihurtzeko aldarria egiten du (erlijioa edota beste ikuspuntu etikoaren gainetik).

Amaitzeko, borrokarako deia berrestearekin batera (“*rebélate contra la inequidad, la mentira y la injusticia. ¡Lucha! La lucha es la vida*”) azkeneko hitza irakurleri eskaintzen dio Kropotkinek: “*Tal es cuanto puede decirte la ciencia de la moral: a ti te toca escoger*”.

## **Bakunin: “El principio del estado”**

Mikhail Bakuninen *El Principio del estado* idazlan honetan, Estatu kontzeptuaren inguruan hausnarketa egiten da eta, honekin batera, hiru erlijio monoteista handiak (kristautasuna, mahometanismoa eta judaismoa; baina batez ere lehenen) aztertu egiten dira, hauek gizabanakoan duten eraginean zentratuz.

Bakuninek Estatuaren, gizartearen antolaketa eredu gisa, errefusatu egiten du guztiz. Estatu guztiek<sup>4</sup> konkista dute helburu, Estatuaren boterearen antolaketa baita. Eta botereak, Bakuninen aburuz, berezko ezaugarritzat du besteen menperapena bilatzea (botereak ez du onartzen bere maila berean edota gainean dagoen ezer). Beraz, botere desberdinen arteko existentzia baketsua ezinezko ikusten du: guda behin-betikoa izango da eta bakea su-etan bat baino ez da izango. Estatuak suntsiketara darama gizartearen; are gehiago, Estatuaren ezeztatzea da.

Estatuaren moral bakarra interes propioen defentsa da. Honengatik, moral politikoa eta giza moralak ez dira bat etorri Historian zehar. Puntu honetan Bakuninek giza moral absolutu baten zein giza eskubide unibertsal baten existentzia –erlijio desberdinek, metafisikoek edota positibistek egin bezala– ukatu egiten du<sup>5</sup> baina, aldi berean, ikuspuntu ateo batetik giza eskubide eta giza moral absolutu horiek onartzen ditu, *absolutu* terminoa birdefinituz. Hau da, Bakuninen aburuz, argi izan beharrekoa da guretzat absolutua dena egiatan oso erlatiboa dela, gizakiak ez baitu *guztiaren* ezagutzarik. Gizakia bera ez da eternoa.

Honela bada, Bakuninek gizakia ezaugarritzen duten printzipioak aztertzeari ekiten dio. Gizakia izaki soziala eta, aldi berean, indibidualistena da. Izakirik garatuena eta inteligenteena da; ezin da garatu gizartearen laguntzarik gabe (hizkuntzaren garrantzia azpimarratzen da, lengoaiarik gabe gizakiak ezingo bailuke

---

<sup>4</sup> Bakuninek Estatu mota guztiak gaitzesten ditu, baita demokratikoak edota sozialistak ere; eta ez du desberdintasunik egiten Estatu handi eta txikien artean.

<sup>5</sup> Mundu honetan guztia erlatiboa ez ote den galdetzen du: “*Respecto de la moral y del derecho: lo que se llamaba ayer derecho ya no lo es hoy, y lo que parece moral en China puede no ser considerado tal en Europa*”. Horrela, giza eskubideak eta giza moralak ikuspuntu garaikide eta lokal batetik (moral hori ematen den garaia eta herrian kokatuz) aztertzearen beharra azaltzen du.



pentsatu, pertsonalitate propiorik garatu...), baina izakirik indibidualistena izaten jarraitzen du.

Bakuninek gizabanakoa inguratzen duen gizarteak honengan duen eragin handia azpimarratzen du. Esklabuz inguraturik biziz gero, zure kontzientzia esklabuarena izango da; neurri berean, guztien jakinduriak zure adimena handituko du. Bakuninek, beraz, Konbentzio Nazional frantziarrean oinarrirituz, ondokoa baieztatzen du: *gizaki bakar baten esklabutza guztion esklabutza da.*

Hau guztia kontuan hartuz, arestian defendatutako moral absolutu hori, gizakiak berezko dituen bi alderdi horien arteko batuketa baino ez da. Hau da, gizakiaren alde indibidualistaren eta, aldi berean, sozialistaren batuketa. Hortaz, Bakuninen iritziz, gainontzeko moral sistemen akats nagusia ondokoa zen: indibidualistak edo sozialistak soilik izatea, gizakiaren bikoiztasun hau kontuan hartu gabe. Horrela, kolektibismo itsu horrek bere isla izan zuen erromatar zein greziarren moral hiritarreen, zeinetan hiritarraren gizabanakotasuna kolektibitateak (Estatuan ordezkaturia) suntsitzen baitzuen. Moral indibidualistak, aitzitik, ordezkari garbiena hiru erlijio monoteista handietan du (judaismoa, mahometanismoa eta kristautasuna).

Bakuninek bere idazlanean zehar, hiru erlijio hauek gizabanakoaren figurarekin duten harremanaren azterketa sakona egiten du, ikuspuntu ateo batetik beti. Juduen erlijioaren dagokionez, erlijio honen aginduak (mandamenduak) gizabanakoari soilik zuzentzen zaizkiola baieztatzen du. Era berean, juduek Jehova soilik gurtu behar dute, Estatuak inoiz ezingo dizkielarik sakrifizio handienak eskatu. Judaismoaren izaera indibidualista argi geratzen da, beraz (nahiz eta kolektibismoaren hondar txiki batzuk gelditzen zaizkion, *herri aukeratuaren* ideia adibidez). Islamari dagokionez, bestalde, erlijio hau gizabanakoari zuzentzen zaio soilik, ez du herririk aipatzen, indibidualista da guztiz. Baina erlijiorik indibidualistena kristautasuna da. Honetan norbera salbatzea predikatzen da, kolektibitatea pikutara bidaliz.

Honek guztiak Bakunin ondokoa baieztatzen darama: giza moralaren ikuspegitik erlijio hauek (eta batez ere kristaua) immoralak dira. Elkartasuna zokoratu dute eta giza kolektibitatea (gizateriaren printzipioa dena) suntsitu.

Bakuninek kristautasuna kritikatu du bereziki. Kristautasunak elkartasuna pekatu bihurtzen du, gizateria artalde batean bilakatzen du. Guztia Jainkoaren esku uzte horrek gizakia ezeztatzen du. Jainkoaren eskuhartzeak giza harremanak gaiztotzen ditu. Adibidez, karitateaz mozorrotu arren, kristauek beraien arimaren salbazioa besterik ez dute bilatzen. Bakuninentzat kristautasunaren oinarrian egoismoa dago; erlijio gizonen bere burua maitatzen dute bere jainkoaren bidez. Jainkoa *ni*-aren glorifikazioa baino ez da. Ondorioz, kristautasuna gizartearen beraren ezeztapena da: “*De todo esto resulta que el cristianismo es la negación más decisiva y la más completa de toda la solidaridad entre los hombres, es decir de la sociedad, (...) no quedan más que las relaciones religiosas del hombre aislado con su dios, es decir consigo mismo*”.

Kristautasuna gogor kritikatu ondoren, erlijioetatik at moralaz egin diren saiakerak (metafisikari modernoek eginikoak) erlijio kutsu handia dutela salatzen du Bakuninek, oinarritzat gizaki soziala hartu beharrean gizabanakoari lotutako *ni*-a hartzen baitute. Horregatik, erlijio monoteistak kritikoki aztertzen dira idazlanean<sup>6</sup>.

Horrela, erlijio sentimendua ez dagokio soilik gizakiari. Sentimendu honen oinarrian beldurra dago, eta animalia guztiek dute sentimendu hau. Gurtzapena edo adorazioarekin ere berdin gertatzen da (adibidez, txakurrak bere jabearen aurrean duen jarrera). Honekin batera, guk ulertzen dugun sentimendu erlijiosoaren jaiotza sentimendu hauen (animaliek dituzten sentimendu berdinak) garapenean dago. Hots, oinarritzako sentimendu hori –fenomeno naturalekin harreman handia duena– pixkanaka ideia batean bihurtu zen, hau pertsonifikatuz eta, ondorioz, gizakiak bere jainkoa sortuz. Lehen momentu hauetan, gizon primitiboak edonon ikus zezakeen jainkoa (harriak, egur puskak...). Garai honi *fetixismoa* deritzo. Fetitxe hauek bizidun bilakatzerakoan, hauen botere ezkutuak gizonarengan bilatzerakoan, *aztiaren* figurak indarra hartu zuen. Behin honek ere ez zuela balio konturatzerakoan, eliminazioz, gizakiak fenomeno natural handienak eta urrunenak gurtzeari ekin zion, azkenean eguzkia eta planetak gurtuz. Jainkotasuna, beraz, gizakitik geroz eta urrunago zegoen. Prozesu honen azken urrats gisa, *jainkotasun ikustezin* bat gailendu zen (gaur egungo erlijioetan ematen dena). Azken hau gizakiak bakarrik sortu duen fenomeno da.

---

<sup>6</sup> Horrela justifikatzen du Bakuninek, anarkista eta atea izanda, erlijioaz hainbeste mintzatzea: “*No quisiéramos hablar de ella, pero en el tiempo que corre es imposible tratar cuestiones políticas y sociales sin tocar la cuestión religiosa*”.

Bakuninentzat prozesu honen oinarrian abstrakzioa eta eliminazioa dago eta, beraz, honen bukaera *–abstrakzio absolutua–* ezereza baino ez da. Ezerez hori da gizakiak jainko gisa gurtzen duena. “*Dios no es, pues, otra cosa que el yo humano absolutamente vacío a fuerza de abstracción o de eliminación de todo lo que es real y vivo*”.

Honetaz, Bakuninen aburuz, gizakia ez da kontziente izan XIX. mendera arte. Baina aurretik, behin ezerez horretaz jabeturik, ezer ez den jainko horri kualitate guztiak egokitu zitzaizkion, dena zen jainkoa. Hori da teologiaren eginbehar absurdua. *Zerua* aberastu zen garai horietan, lurra pobretu besterik ez zen egin. *Erljio fikzioak* deitutakoak gertatu ziren, hau da, zeruan omen zeuden fikzio horien kontrakoak, errealitatean lurrean aurkitzen ziren (maitasun zerutiarra gorroto lurtarra besterik ez zen, adibidez).

Prozesu honen guztiaren zenbait adibide jartzen ditu Bakuninek bere obran zehar: Ekialde Urruneko erlijioak, Grezia (non jainkotasuna gizakira hurbiltzen den mitologiaren bidez), juduak...

Ondoren, teologo kristauak gogor kritikatzeko ditu Bakuninek. Satanasen figuraren sorrera, Jainkoaren maitasun absolutuaren ideia, Jainkoak bere semea lurrera bidaltzearen kontzeptua edota teologoek beste asmakeria guztiak hankaz gora jartzen ditu, aurkako argumentu arrazoituak emanez. Kristautasunak (hala katolizismoak nola protestantismoak) gizaki gutxi batzuen salbazioa soilik agintzen duela ere gogoratzen du. Era berean, kristautasunak milaka gizakiri pairarazitako sufrimendua (hilketak, Inkisizioa...) gogor gaitzesten du.

Bakuninek, beraz, oso sakonki kritikatzeko du erlijio katolikoa, eta honen jakintza handia erakusten du, kontra egiteko bada ere.

Azalpen honetaz baliatuz, munduaren sorreraren (krezioa) ideia beraren aurka egiten du. Horrela, krezioa eternoa bada, ez da krezioa, zerbait sortzeko noizbait egin behar baita. Eta Jainkoak mundua sortu badu, mundu honek Jainkotik independentea izango den garapena izan behar du. Teologoek hauek misterioak direla dioten bitartean,

Bakuninetzat azalpen erlijioso hauek guztiak absurduak besterik ez dira: *“La existencia de dios es incompatible con la del mundo. Si existe el mundo, dios no puede existir”*.

Bakuninek, beraz, lehen aipatu dugun bezala, *El principio del estado* lan honetan, erlijioaren eta jainkoaren kontzeptuaren aurka egiten du guztiz. Argi gelditzen da erlijioaren aurkako jarrerak edota ateismoak anarkismoaren baitan duen garrantzi handia.

## Ondorioz

Nire aburuz, bi idatzi hauetan anarkismoaren oinarrizko ideiak azaltzen zaizkigu. Batetik, elkartasun eta gizabanako kontzeptuen arteko oreka. Hau da, anarkismoak gizabanakoen elkartasunaren alde egiten du guztiz (Bakuninek eta, batez ere, Kropotkinen gizakiaren ezaugarri naturaltzat hartzen dute; eta elkartasunaren defentsa honengatik ere, anarkismo mota jakin batzuei *sozialismo libertarioa* deitu izan zaie); baina, aldi berean, gizabanakoaren figuraren errespetu osoa eta lehentasuna aldarrikatzen du anarkismoak (sozialismoarekin gertatu ez bezala, non masak, gizarte klaseak... gailentzen baitira). Ideia bikoiztasun hau behin eta berriz errepikatzen da hemen aztertu ditugun idazlanetan.

Bestetik, erlijioaren aurkako jarrera erabat argia da. Anarkismoaren ezaugarri garrantzitsuenetarikoa bezala jo dezakegu ateismo erradikal hau. Hau bereziki argi gelditzen da Bakuninen obran (baita Kropotkinen idatzian ere), non erlijioaren arrazonamendu desberdinak hankaz gora jartzen diren.

Ideia hauekin batera, beste ideia ugari azaltzen zaizkigu. Hala nola, hezkuntzari (ez erlijiosoan, noski, eta *arrazoian* oinarriturik) ematen dioten garrantzi handia, sistemaren aurpegi desberdinen kritika erradikala (batez ere Estatua, sistema judiziala eta orokorrean Agintearen aurka), etab.

Ondorioz, nahiz eta pentsalari anarkista hauek defendatzen dituzten ideiak sakonak, sistematikoki arrazoituta, etab. izan, anarkismoak ez du bide argirik edota teoria orokorrik proposatzen sistema kapitalista suntsitu eta gizarte anarkista eraikitzeko (marxismoak egin bezala, adibidez). Hein handi batean, beraz, anarkismoa ideien arlora mugatzen dela ondoriozta dezakegu. Horregatik, ikuspuntu edo teoria anarkistak ez du batasunik, baizik eta pentsalari bakoitzak egindako irakurketetara mugatzen da. Honek guztiak, hala ere, ez du eragozten anarkistek erabilitako kontzeptu asko erabilgarriak eta zuzenak izatea.